

ERRONKAK

ETA HELBURUAK

hermes

1. ERRONKAK

Euskal hezkuntzaren erronkak XXI. mendeko lehen laurdenean

1.1. GIZA GARAPENA

Ezagutza eta baloreak sustatzen dituen giza garapenerako hezkuntza

Giza garapenak ezinbestekoak dituen ezagutza eta baloreak sustatu behar ditu euskal hezkuntza sistemak, giza garapen osorako hezkuntza helburu nagusirako bidean.

Izan ere, hezkuntza alorreko eztabaida eta gogoetagai klasiko bat du muin-muinean galdera-erantzun honek: zer lortu nahi dugu hezkuntzaren bitartez?; pertsonaren formazioa ote da lehentasuna?, edo herritarraren eta gizartearen dimentsio ekonomikorako (lanbidea, enplegua...) baliagarria izango den prestakuntza?

Abiapuntu horrez gain, bada beste arrazoibide bat estu-estu lotzen zaiona galdera-erantzunari: baloreez hitz egiterakoan, haien ahalmen eraldatzaileari erreparatu behar diogu ezinbestez, hori baita, funtsean, eskolaren zeregin nagusietariko bat: gizartea eraldatzea, balio egokiak landuz.

Balore horiek zehazteko garaian, hiru multzotan sailka ditzakegu, haien edukiaren ara-

bera: 1) pertsonari dagozkienak; 2) gizarteari dagozkienak; eta 3) lanbideari edo garapen profesionalari dagozkienak. Garbi dago, era berean, balore-ildo horiek guztiz loturik doazela, ez baitago formatutako gizakirik norbera izaten ez dakienik, eta, aldi berean, gizarte batean elkarbizitza mamitzen ez dakienik, eta ogibide batean jarduten ez dakienik.

Ikuspegi horretatik abiatuta lehenetsi behar-ko ditu euskal hezkuntza sistemak, bere prozesu osoan zehar, etengabe landuko dituen balore nagusiak, kontuan izanda eskolaren (hau da, hezkuntza sistemaren) ahalmen eta baliabideak beti mugatuak izango direla. Urrats bat gehiago emanez, hiru lerrotan bil litezke baloreak, eskolako lanketaren ikuspegitik:

- Gizartearen baloreak lantzea: ahalegina, elkartasuna, ekintzailtza, berrikuntza, prestakuntza, konpromisoa, modernitatea.
- Bizikidetzaren lantzea eremu guztietan, genero-berdintasuna barne.
- Iraunkortasuna balore gisa txertatzea.

J.I. ETXEZARRETA JORGE GIMÉNEZ

ELKAR-IKASTOLAK ZERBITZUAK, ZUZENDARIA.

EUSKAL EDITOREEN ELKARTEKO PRESIDENTEA.

Baloreen lanketa horretan, eta ezagutzari dagokionez, Europako hezkuntza estrategiei jarraitu behar zaie, beti ere eredu humanistago baten arabera, giza garapenaren alderdi etiko, kultural eta ekologikoak kontuan hartuta.

Hezkuntza-estrategien alorrean, berriz, honako jarraibideok zaindu beharko lirateke:

- Aukera-berdintasuna eta zuzentasuna bermatzea, bizitza osoan zehar mamitu behar den hezkuntza prozesu batean.
- Transmititzen den ezagutzaren erabilgarritasuna eta atsegingarritasuna zaintzea.
- Ezagutza-langileen profila era egokian zehaztea.
- Adimen emozionalaren inguruko trebetasunak lantzea.
- Eskola, etxe eta lantokiaren zeregina partekatzea, trebetasunak eta baloreak transmititzerakoan.

1.2. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Oinarrizko kultura zientifiko-teknologikoa transmititzen eta sustatzen dituen hezkuntza

Oinarrizko kultura zientifiko-teknologikoa transmititu eta sustatu behar du euskal hezkuntzak, ez bakarrik lehiakortasunak eta euskal enpresak edo sistema teknologikoak derrigorrezkoa dutelako alor horietako prestakuntza egokia hezkuntzaren maila guzietara zabaltzea, baizik eta, aurreko atalaren ildo bertsutik, ezinbestekoa delako, eskolaren eta hezkuntzaren ikuspegi eraldatzaile batetik, iritzi kritikoa sustatu eta zabaltzea, eta horrek espirtu zientifikoaren garapen sendoa eskatzen du (frogetan oinarrituriko irizpi-deak izatea, zorrotz jokatzeta...).

Azterketen arabera, euskal hezkuntzak defizit zientifiko-teknologiko bati aurre egin behar dio, eta, horrekin batera, baita espezializazioaren erronkari ere. Bi ildotako lanari heldu behar zaio, ikuspegi horretan: 1) lehen hezkuntzako irakasleen prestakuntza zientifiko-teknologikoa etengabe eguneratzea; eta 2) eskola eta ezagutza-langileen orientaziorako ahalmen eta trebetasuna lantzea.

Azterketen arabera, euskal hezkuntzak defizit zientifiko-teknologiko bati aurre egin behar dio, eta, horrekin batera, baita espezializazioaren erronkari ere. Bi ildotako lanari heldu behar zaio, ikuspegi horretan: 1) lehen hezkuntzako irakasleen prestakuntza zientifiko-teknologikoa etengabe eguneratzea; eta 2) eskola eta ezagutza-langileen orientaziorako ahalmen eta trebetasuna lantzea.

Alor honetako lanketa praktikoari begira, hainbat orientabide nagusi gauzatu beharko litzateke:

- Etengabeko ikaskuntzaren kultura mamitzea, ikuspegi humanistikoa eta garapen iraunkorraren helburua baztertu gabe, eta kontuan izanik ezagutza guztiak direla baliagarriak edozein alorretan aritzeko. Era berean, bikaintasunerako aukera duten ikasleei baliabide egokiak eskaintzea ere lehentasunezkoa da.
- Zientzia eta teknologiarekiko ikasleen sentiberatasuna lantzea hezkuntzaren lehen urratsetatik hasita, “egin, ekin, ikeru” baloreak transmitituz eta bultzatuz.

- Hezkuntza maila bakoitzaren (unibertsitate, lanbide hezkuntza, gainerako hezkuntzak...) eginkizunak ongi zehaztu, ordenatu eta bateratu behar dira. Arreta bereziz tratatu behar da, eremu zientifiko-teknologikoan, lanbide hezkuntzaren eginkizuna, bere espezifikitateak hala eskatzen baitu.

1.3. EBALUAZIO ETA HOBEKUNTZA

Ebaluazioaren kultura hobekuntzarako erreminta gisa baliatzen duen hezkuntza

Euskal hezkuntzak bere baitan tinko txertatu behar du ebaluazioa, hobekuntzarako bide moduan eta hezkuntza-bikaintasunerako bidean, irakaskuntzaren ebaluazioa ezinezkotzat jo ohi duen inertzia gaindituta.

Hala ere, ebaluazioak eta hobekuntzak alde aurretik finkaturiko norabide jakina izan behar dute jomuga. Hau da, zentzuzko ebaluazioa eta hobekuntza bideratu ahal izateko, zehaztu behar da, lehenik eta behin, nolakoa nahi dugun gizartea, pertsona, gizartekidea, eta, era berean, zer-nolakoa izango den pertsona horren egibidea.

Era berean, ebaluazioaren parametroak argitu eta zehaztu behar dira, ebaluazioak dimentsio etikoa ere baduela kontuan izanda, eta pertsonen ibilbidean nahiz egitasmoetan eragiten duela jakinik. Ez baita ahaztu behar ebaluazioak ez dituela soil-soilik ikasleak eta eskola konprometitzen, baita familiak, arautzaileak eta legegileak ere. Bestela esanda, hobekuntzaren ikuspegitik gauzatzen den ebaluazioa gizarte-erantzukizun ariketa bat da, eta, hezkuntza-komunitateaz gaindi, gizartearen gune nagusietan zehar hedatzen du bere eragina.

Bestalde, eta euskal curriculumaren ebaluazio-sistema propioa abiarazterakoan, lortu nahi

den arrakasta-maila, sortzen den balio gehitua eta arrakastaren osagaiak identifikatu behar dira, praktika arrakastatsuak identifikatuz eta haiekin ari direnentzako eredutzat eskainiz. Horretarako, bertako kudeaketa eredu propioen eskarmentua baliatu beharra dago. Era berean, gaur ezagutzen ditugun ebaluazio tresnez gain, sorkuntza, berrikuntza eta iritzi kritikoaren osarearekin loturikoak sortu behar dira.

Alor honetan, alboratu ezin den eztabaida-gaia sortzen da gogoetaren gune-gunean: ebaluazioaren garaian, norainokoa behar du izan herri erakundeentzako lidertzak, eta norainokoa ikaste-txarearen autonomiak?

1.4. IDENTITATE KULTURALA

Eleaniztasunetik eta kultur-artekotasunetik euskal kultura eguneratzen duen hezkuntza

Euskal hezkuntzak bere-bereia, funtsezkoa du euskal kultura eguneratzearen zeregina, eta, gaurko mundu globalizatuak hala aginduta eta euskal gizartearen beraren ezaugarri berriek hala eskatuta, eleantzasun eta kultur-artekotasunaren arragoan goritu beharko du garaiak eta geroak ezinbestekoa duten euskal kultur identitate anitzaren aleazioa, sustraietatik datozen zainak etenik gabe modernitateraino luzatuz.

Euskal gizarteak bere baitakoa du, oso, aniztasuna (lurralde batetik bestera, lurralde bakoitzaren barruan...). Ezinbestekoa du, beraz, aniztasuna baloretzat hartzea eta, era berean, euskal herri-tarrak ikuspegi integratzaile batetik jokatzen saiatzea.

Euskal identitatearen ardatzak (luzaroan euskara eta aber-tzaletasunarekin lotuak) erlatibizatu behar dira. Horrekin batera, euskal kultura eraberritu, eguneratu, etorkizunera proiektatu beharra dago.

Euskal hezkuntzak bere-bereia, funtsezkoa du euskal kultura eguneratzearen zeregina, eta, gaurko mundu globalizatuak hala aginduta eta euskal gizartearen beraren ezaugarri berriek hala eskatuta, eleantzasun eta kultur-artekotasunaren arragoan goritu beharko du garaiak eta geroak ezinbestekoa duten euskal kultur identitate anitzaren aleazioa, sustraietatik datozen zainak etenik gabe modernitateraino luzatuz.

Aldi berean, euskara eta euskal kultura tradizionala bereganatu behar dituzte belaunaldi berriek, era naturalean, baina, horrekin batera, mundura ireki beharra dago euskal kultura ere, modernoago, garaikideagoa izateko, eta, horretarako, euskal herritar berriekiko lankidetzak behar dugu, bizikidetzak ezinbestekoa baitu haien ekarpenaren eta bertakotasunaren arteko dialektika sortzailea.

Azken batean, gizarte kohesioa bermatu eta kultur identitate propioa inguru kultur-anitzean integratuko duen hezkuntza eleanitzak hizkuntza eskubideei era praktikoan eutsi behar die: hau da, euskara ardatz nagusitzat hartu eta haren biziraupena bermatu behar du, era berean Euskadiko beste hizkuntzak modu egokian trataturik eta hirugarren hizkuntza modu eragingarrian txertaturik.

Kultur-artekotasunaren lanketa praktikoa- ren inguruko gogoetan, indar handiz ageri da eztabaidagai mamitsu bat: norainokoa behar du izan hizkuntza helburuen eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoaren arteko lotura?; helburu orokor bakarra eta tokian tokiko estrategiak behar dira?, edo egokiagoa ote da helburu orokorrak ere tokian tokiko ezaugarri soziolinguistikoaren arabera modulatzeko?

1.5. AKORDIOA

Adostasun politiko eta sozial zabala duen hezkuntza

Euskal hezkuntza sistema iraunkor batek ezinbestekoa du akordio politiko eta sozial zabal dinamikoa, Euskal Autonomia Erkideagoaren mar- koan, eta alderdi politikoek eta herri erakundeek bideratu beharko lukete horretarako prozesua. Hau da, hezkuntzaren gaia euren lehentasune- tan txertatu beharko lukete, agenda politikoaren ezinbesteko osagarri gisa. Garbi dago, hala ere, eragile sozialek ere badutela akordiorako bidean funtsezko eginkizun zehatzik.

Akordio horrek gutxieneko baldintza sendoak eskaini beharko lituzke, eta luzarorako, eta lehenta- sun partekatuak edo komunak zehaztea eta katalo- gatzea litzateke haren bideko lehenbiziko urratsa.

Akordioa, jardun jarraituan oinarrituta, na- gusiki hizkuntza, IKT eta bizikidetzaren alorretan mamitu beharko litzateke, eta ikastetxea indar- tzearen ikuspuntutik abiatuta, identitate propioa duen hezkuntza publikoaren zerbitzua garatu eta babesteko sinergiak landuko lituzke.

2. HELBURUAK

Erronka horiei aurre egiteko helburuak

2.1. GIZARTERAKO HEZKUNTZA

Hezkuntzaren xedea finkatzeko jardun kla- sikoetan giza garapenaren aldeko norabidea eta ogibidearen aldekoa lehiatu badira ere, bi norabi- de horiek, bateragarriak izateaz gain, batera gau- zatu beharrekoak dira.

Batasun hori, bestalde, hezkuntza-prozesu osoan zehar mamitu beharra dago, etengabe- ko jardun jarraitu batean. Jardun horren oinarria lirakeen baloreek, gutxi eta ondo hautatuak izan behar dute: batetik, euskal curriculumean agertzen direnak; beste batetik, giza portaeren oi- narrian dauden askatasuna, elkarbizitza eta eran- tzukizuna, generoen arteko berdintasunarekin batera; eta, aurreko guztien alboan, ekintzailtza.

Aparteko garrantzia du irakasleek ikasleengan jakin-mina sortzen eta areagotzen asmatzeak, hala nola horretarako metodologia egokia hautatzeak eta hura trebetasunez baliatzeak. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan giltzarria da, beraz, irakasleak helburu horiek lortzeko prestatzea.

Hezkuntzaren egitekoaz gaindi, arreta berezia eskaini behar zaie hezitzailearen egitekoari eta, bereziki, prestakuntzari. Aparteko garrantzia du irakasleek ikasleengan jakin-mina sortzen eta areagotzen asmatzeak, hala nola horretarako metodologia egokia hautatzeak eta hura trebetasunez baliatzeak. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan giltzarria da, beraz, irakasleak helburu horiek lortzeko prestatzea.

Ilido bertsutik, ikastetxe eta unibertsitateetan aritzen eta ariko diren irakasleen prestakuntza, hasierakoa eta etengabekoa, ere zaindu behar da, egungo garaiak eta etorkizun hurbilak eskatzen duten ikasle profila lortzeko bidean. Izan ere, horretarako behar den berrikuntza metodologikoaren eta hura menperatzen duten profesional trebeen urritasuna sumatzen baita. Bistan da, bestalde, ezinbestekoak direla, irakaslearen funtzioari ospea eta onespenera aitortzeko garaian, baliabide metodologikoak berritzea eta haietan trebaturiko profesionalen presentzia. Hots, profesionaltasuna era praktikoa aldarrikatu beharra dago.

Azkenik, eta unibertsitatean ari diren irakasleen eginkizunari dagokionez, derrigorrezko hezkuntzan egiten den ahalegin didaktikoak pareko erantzuna, edo hobe, behar luke unibertsitatean, eta, horretarako, bi eremutan indartu behar da, kemen berberaz, haien zeregina: ikerkuntzarenean, jakina, baina baita goi mailako irakaskuntzarenean ere.

2.2. LANBIDERAKO HEZKUNTZA

Agerikoa da azken hogeitorteko lanbide hezkuntzak egin duen aurrerabidea, eta euskal ekonomiaren oinarrian dagoen ekoizpen sistemaren zutabeetako bat dela kontuan hartuz, zenbait norabidetan indartu behar da.

Batetik, ekonomiarekiko harreman estuagoa behar du, bai aurrerapen teknologikoetan, baita ekonomia-sisteman behar diren giza baloreetan ere. Hots, hezkuntzaren dimentsio orotan. Beste batetik, unibertsitateekin batera, egungo enpresen garabidea eta indarra irabazten ari diren sektoreen aurreikuspena lagunduko dituzten estrategiak eta planteamenduak mamitu behar dira. Hirugarren norabidea, bizitza osorakoa behar duen etengabeko prestakuntza da. Eta, azkenik, euskararen presentzia ere handitzea alborazko norabidea da.

Norabide horiek jopuntu bateratua izan dezaten, lanbide hezkuntzak bere curriculum propioa, berriazkoa, behar du, irteerako ikasle profila ondo identifikatuko duena, ikastetxe eta enpresen arteko lotura erraztuko duena, ikastetxearen irakaskuntza-lanari eta teknologia-zerbitzuari edukia emango diena: azken batean, egungo gizarteak eta ekonomiak eskatzen duten lanbide hezkuntza-eredua gorpuztuko duena.

Azkenik, bi aipamen garrantzitsu egin behar da alor honetan, gaurko errealitateari erreparatuta: lehena, hezkuntza-sistemaren malgutasun falta; eta bestea, ikastetxeek dituzten praktika onak beste batzuentzat baliagarri bihurtzeko zailtasuna. Bi ezaugarriok, elkarri lotuta, ikastetxeen benetako autonomia baten gabeziaren lekukoak dira, eta, beraz, hobekuntza-arlo nabariak.

2.3. KOMUNIKAZIORAKO HEZKUNTZA

Hiru esparru bereizi behar dira: hizkuntzak, informazio eta komunikazio teknologiak eta zeinahi egoeratan behar den komunikazio konpetentzia.

Hizkuntzen esparruari dagokionez, euskara ardatza duen eleaniztasunaren eredua (eus-

Hezkuntzak behar-beharrezkoa du itun zabal iraunkorra. Nolanahi ere, eta politikagintzaren eremuan hezkuntzaren garrantzia maiz aipatzen den arren, hezkuntza gehiagotan da borroka politikorako gudu-zelaia, akordiorako gune bano.

kara eta gaztelania, Hegoaldean, eta binomio ofizialari ingeles eta laugarren –hirugarren hizkuntza baino maila apalagoan– hizkuntzak txertatuta da, zalantzarik gabe, gauzatu beharrekoa, Europako estandarren erreferentzia baliaturik (hizkuntza 1 + nazioarteko 2 hizkuntza jakitea, gurean, bi hizkuntza + 2). Horretarako, hizkuntzak irakasteko metodologia berritzea eta baliabide materialak egokitzea lehen-lehen mailako premiak dira, eta ezinbestekoa da, era berean, ikastetxe bakoitzaren eremu orotan –pedagogikoan, instituzionalean eta ingurunean– hizkuntzen trataera jasoko duen hizkuntza-proiektua.

Beste hainbeste esan daiteke informazio eta komunikazio teknologien esparruari dagokionez ere: hizkuntza-proiektua ezinbestekoa den bezalatsu, nahitaezkoa da ikastetxe bakoitzak bere IKT proiektua izatea.

Gogoeta sakona eskatzen du, era berean, hizkuntzetatik haratago doan komunikaziorako konpetentzia garatzeak, komunikazioa ez baita mugatzen hizkuntza bat jakitera edo menderatzera, baizik eta testuinguru desberdinetan adierazpen doituera erakustera, edo, bestela esanda, zeinahi egoeratan arrakastaz murgildu ahal izateko, gaitasun komunikatibo nahikoa izatera.

2.4. ELKARBIZITZARAKO HEZKUNTZA

Indarkeria politikoak ekarritako bizikidetzagabeziaren ondorioei buruzko hainbat konponketa-proposamen helarazi da hezkuntza-eremura, azkenaldian, politikagintzaren esparrutik, eta, ñabardurak ñabardura, argi dago zein den elkarbizitzarako hezkuntzaren helburu nagusia: Euskadin galdutako urteak berreskuratzeko baliagarria izatea. Era berean, baloreetan oinarritutako hezkuntza sustatzea eta giza eskubideen aldarrikapenaren markoa sendotzea ere badira elkarbizitzarako hezkuntzaren eginkizun.

Unibertsitateek izaera prospektiboz jardun behar dute, eta inola ere ez gizarte-eskaera eta dinamiketatik at baleude bezala.

Elkarbizitzarako hezkuntza bideratzeko garaian, eskolak eta gizarteak lankide izan behar dute, gaia zehar-lerrizat hartuta. Bestalde, hezkuntza formala eta ez formala batera mamitu behar dira, eta materiala eta prestakuntza doitu. Nolanahi ere, ikastetxearen proiektuan sarbidea izan behar du elkarbizitzarako hezkuntzak, barruko bizikidetzarekin eta gatazkak konpontzeko bertako bidearekin batera.

Elkarbizitzari dagokionez, guztiz loturik doaz eskolaren eginkizuna eta gizartearen arduraren, ezin baita ikastetxearen esparrura eroan –are gutxiago modu behartuan– eztabaida politikoan adostasunik lortu ez duen arazoa. Alor honetan ere, ikastetxearen autonomia eta elkarte-sena (ikasle, profesional eta gurasoek osaturiko elkarteak baita, azkenean, eskola) dira ikastetxeak berak gaia nola jorratu behar duen erabakitzeko lanabes nagusiak.

2.5. UNIBERTSITATE-HEZKUNTZA

Euskal unibertsitateek gaurko gizarteak eta, honen barruan, enpresa munduak eskatzen duten sostengua eskaini beharko lukete, eta horretarako behar den doikuntzari ekin beharko liokete, luza gabe.

Era berean, unibertsitateek izaera prospektiboz jardun behar dute, eta inola ere ez gizarte-eskaera eta dinamiketatik at baleude bezala. Azken batean, ikerketa eta etengabeko eta hasierako prestakuntza dira unibertsitatearen xede eta jarduerak nagusiak, beti ere XXI. mendeko gizarteak dituen beharrezko kontuan harturik.

Unibertsitatearen eredu aproposaz gogoeta egiterakoan, curriculum propioa, berariazkoa, da garbi ageri den lehen premia, eta, horrekin batera, unibertsitatearen irteerako ikasle profilararen identifikazioa eta unibertsitate eta enpresaren arteko lotura erraztea. Izan ere, ezinbestekoa baita

unibertsitatearen irakaskuntza-lanari eta ikerkuntza-zerbitzuari edukia ematea eta, azken finean, egungo gizarteak eta ekonomiak eskatzen duten unibertsitate-eredua gorpuztea.

Horren arabera erabaki beharko lirateke, besteak beste, unibertsitateetan aritu beharko litzatekeen ikasle kopurua, irakasle eta ikerlarien kopuru eta profila, enpresen eta unibertsitatearen arteko lankidetzak-akordioak eta doktoretza-tesien gaiak. Azken helburua, bistan denez, unibertsitate irekiago eta zentratuagoa da.

Gogoeta sakon zabala eskatzen duten gaiak ateratzen dira, aurrekoez gain, alor honetan bidera, eta horietako bakar bat aipatzeagatik, unibertsitateak ebaluatzeko irizpideen —eta, erabat loturik baitoa, unibertsitateak sailkatzeko erabiltzen den rankingaren— egokitasuna da, akaso, lehen-lehenik aztertu beharrekoa.

2.6. ADOSTASUNEZKO HEZKUNTZA

Hezkuntzak behar-beharrezkoa du itun zabal iraunkorra. Nolanahi ere, eta politikagintzaren

eremuan hezkuntzaren garrantzia maiz aipatzen den arren, hezkuntza gehiagotan da borroka politikorako gudu-zelaia, akordiorako gune baino.

Jokabide kaltegarri hori gainditzeko bidean, hiru mailatako akordio-motak bereizi beharko lirateke, nagusitasunaren ikuspegitik: euskal hezkuntza-sistema propioa antolatzeke eta arautzeko akordio-markoari dagokio mailarik gorena; hezkuntza-politika, kultur eraikuntza, elkarbizitza eta gisako gakoak buruz —hots, hezkuntza-sistemari gutxieneko iraunkortasuna emango dioten elementu esanguratsuei buruz— ituna lortzeari dagokio bigarren maila; eta hirugarrena, berriz, egunerokotasuna eta gertutasuna erreferentziatzen hartuta, baliabide ekonomikoak eta materialak adostuko litzatekeen itunak hartzen du.

Hiru akordio mota horiek integratuta legearen araubidea bermatu beharko lukeen ituna litzateke, ez bairik gabe, emankorra, baina, ororen gainetik, politikagintzaren eta gizarte-eragilearen ikuspegitik begiratuta bideragarri eta iraunkorra gerta daitezkeen akordio politiko eta soziala erdiestea da, gaur egun, premia-zakoena, akordio ezari amaiera ematea baita etorkizunerako bidean urratsik sendoena.



FERNANDO TORRECILLA.
Errenteria (Gipuzkoa), 1965.

Ilustrador procedente del mundo del comic (HABEKOMIK, TEMEO...) Colabora durante dos años como ilustrador y caricaturista en el diario DEIA.

Portada del libro "Charlot debe morir" de David Barbero. Ilustraciones para el libro infantil "Kilkerra eztarrian" de Juan Luis Mugertza. Carteles de las obras "Cantata y fuga de Adán y Eva", "Letizienta"... Carteles de teatro infantil para las obras "Txanogorritxo", "Handitan", "Anbotoko Mari", "Arratxitxo pinpirina"... Ilustración para el proyecto "Ingurumen politikak Euskadin".

Premio de animación en el Festival de Cine de Lekeitio 2004 con la pieza "Astelehena".

Actualmente colabora con el estudio BITYMINA en el proyecto "Klasikoen txokoa" con las ilustraciones para la animación "Altzor uhartea".

www.fernandotorrecilla.com

www.blogseitb.net/fernandotorrecilla